



2014KO JAI NAGUSIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Hondarribiko Udaleko Kultur Sailak 2014ko Jai Nagusietako Kartel Lehiaketa antolatu du ondoko baldintzen arabera:

- 1.- Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.
- 2.- Erabiliko den teknika librea izango da, hots: argazkia, margoa, marrazkia, collage, etab. lanak derrigorrez jatorrizkoak eta ezagertuak izan beharko dutelarik.

3.- Kartela bertikala izango da eta bere luze zabalera 70 x 50 zentimetrotakoa.

Neurri hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira onartuko lehiaketa honetan.

Egileek ez die markorik jarriko, horretaz antolatzaileak arduratuko baitira.

4.- Lehiaketara aurkezten diren kartel guztietan honako lema hau agertuko da:

"HONDARRIBIKO JAIK 2014ko IRAILA"

5.- Ondorengo sariak emango dira:

1. saria: 650,00 €
- 2 saria: 300,00 €
- 3 saria: 200,00 €

Sari hauei P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaie.

Lehiatzale bakoitzak sari bat besterik ezingo du jaso.

Lehen saria irabazten duen lana izango da 2014ko Jaietako kartel-iragartzailea.

Sari banaketa Jai Nagusietan egingo da.

6.- Lanak honako helbide honetara eraman ahal izango dira:

Hondarribiko Udala - BAZ
Kale Nagusia, 20
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Ordutegia: 09:00etatik 13:30era (astelehenetik ostiralera)



gutunazalean adierazi beharko duelarik "2014ko Jai Nagusietako Kartel Lehiaketa", 2014ko uztailearen 21eko 13:30 orduak baino lehen.

7.- Lan hauek egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzealdean lema bat idatzita daramatelarik, honekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren lema bera idatziko da.

Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, N.A.N.en fotokopia eta telefonoa idatziko dira.

8.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

9.- Lan guztiak, Zuloaga Etxean erakutsiko dira abuztuaren 25etik irailaren 19a bitarte.

10.- Saritutako kartelen jabea Udala izango da eta berori inprimatu, argitaratu eta zabaltzeko eskubidea izango du.

Beste partehartzaileek ere baimena eman beharko dute, Kultura Batzordearen ustez merezi duten lanak jaietako Egitarau Ofizialean argitaratzeko, beti ere egilearen izenarekin.

11.- Lanak, BAZeko bulegoetan (Kale Nagusia, 20 - behea) jaso ahal izango dira irailaren 24tik 26ra, eguerdiko 12:00etatik 13:30era.

Goian aipatutako epearen barruan lanak jasoko ez balira, lehiatzaileak horri uko egin diola ulertuko lukete antolatzaileek.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek oso osorik ontzat ematen dira.

13.- Epaimahaikoen ustez aurkeztutako lanak saria jasotzeko behar adineko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango ditu.

Hondarribian, 2014ko uztailearen 3an

JARDUNEKO ALKATEA,



Izp.: Txomin Sagarzazu Ancisar

HONDARRIBIKO UDALÆ